

UDARA BERRIKO LORIAK

Goizeko chori soñu ederrak
Entzuten guztiz alegere,
Bakarrik ayek aditu eta
Ez nago ikusi gabe;
Aldiyan bein agertutzen naiz
Ez nik nai nuken ainbeste,
¡Ai ikusiko bazinduzket nik
Beñere igartu gabe!

Ez det asetzen ala ere nik
Nai anbat nere begiya,
Sasoyan bein izaten dezu
Nik diyotan gozaldiya,
Sarjin onian baldin bazaude
Lurra onakiñ aziya,
Aitutzenda alašen ere
Ikusitzen dan guztiya.

Nere begiyak beren urrian
Ikusten ez bazaituzte,
Gogoraturik egoten naiz ni
Bakar bakarrikan triste;
Chinista nazu zeru azpiyan
Ez dala inor ni beste
Zuri begira egoten danik
Merezi dezun ainbeste.

Ia gozua izango al dan
Zoraturikan daguana,
Esan liteke mundu onetan
Gauzik onena badala
Azi batekiñ lurra onari
Orrela azaltzen dana,
Zure kolore dizdizariyak
Udaran du beti fama.

Lore berriya zeran denboran
Ernaiturikan begira,
Zure kolore eder fin oyek
Geldi ikusitzen dira;
Lurrak dakarren indarrarekiñ
Orrela azaltzen dana
Ikusi gabe ere inondik
Idukitzia gaitza da.

Udara jun ta gertu neguba
Zaigunian inguratzen,
Zure kolore dizdiz ziranak
Nola juten diran aitzen,
Jakiña dago azkenerako
Zeradela zu igartzen.
Mundu onetan gauza danori
Au bera zaigu gertatzen.

JOSÉ ZAPIRAIN ETA IRASTORZA.